



Sindicato Médico de Euskadi | Euskadiko Sendagileen Sindikatua

PRENTSA-OHARRA

SME gaur goizeko mahai sektorialetik altxatu egin da

- **Ez da baliozko mahai sektoriala, langile guztiak ez baitaude ordezkaturik**
- **Osakidetzako Zuzendaritzak bere jarrera alda dezan eskatzen dugu, elkarrizketarik gabe ezin baita aurrera egin**

Bilbon, 2022ko martxoaren 9an. -- Euskadiko Sendagileen Sindikatua, negoziatzeko jarrera erakutsiz, Osakidetzako Zuzendaritzak gaur, 2022ko martxoaren 9an deitutako Mahai Sektorialean izan da.

Hauek ziren landu beharreko gaiak:

1. **2018-2019 LEP** (deialdiaren 2. fasea).
2. **Garapen profesionala**
3. **Baimenak**
4. **Behin-behinekotasuna**

Hala ere, beste sindikatueta inor ez zegoela ikusita eta gainerako gizarte-eragileekiko errespetuan eta ezaugarri dugun elkartasun-printzipioan oinarrituta, **mahaitik altxatzea erabaki dugu**. Uste dugu **ez dela baliozkoa**, Osakidetzako kategoria guztiak ez baitaude ordezkaturik.

Horri dagokionez, oso deigarria egiten zaigu Osakidetzak prentsa-ohar bat argitaratzea, non ziurtatzen duen Mahai Sektoriala egin egin dela. Gainera ohar horretan eguneko puntuetako bat baino ez du aipatzen: lan-eskaintza publikoa, langileentzat garrantzia berdintsukoak edo handiagokoak diren beste puntu batzuk tintontzian utziz: **garapen profesionala**, baimenak eta behin-behinekotasuna.

SMEk Osakidetzako Zuzendaritzari eskatzen dio **bere jarrera berriro aztertu eta bidera dezala**, benetako elkarrizketarik eta negoziatorik gabe ez baitago aurrera egiterik.

Informazio gehiago:

Cristina Leciñana

688 74 81 33 | comunicacion@sme.eus